



Arartekoaren 2018R-1648-17 Ebazpena, 2018ko maiatzaren 24koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio baliogabetu dezala herritar bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzetarako prestazio osagarria ukatu zizkion ebazpena.

Aurrekariak

1. Herritar batek Arartekora jo zuen, eta adierazi zuen ez zegoela ados Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzetarako prestazio osagarria eten izanarekin.
2. Kexagileak eduki ekonomikoko eskubide oro baliatu ez izana zuen oinarri prestazioak ukatu zizkion ebazpenak. Hain zuzen ere, bi arrazoi hauek zirela tarteko ukatu zizkion Lanbidek prestazioak interesdunari:
 - *Eskubideak ekonomiko guztiez ez baliatzea.*
 - *Etxebizitza-kontratuak (errentamendu, azpierrementamendu, etab.) Hiri-finka Errentamendu-kontratuen Erregistroan inskribatuta egon behar dira. Inskripzioaren frogagiria ekarri beharko du."*

Interesdunak kexa-idazkian azaldu zuen Lanbideren bulegoko langileek ahoz jakinarazi ziotela eskaera ukatzeko arrazoi nagusia zela azpierrementamendu gisa jasotzen zuen zenbatekoa murriztu izana.

3. Prestazioak ukatu izanarekin bat ez zetorrenez, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri zuen kexagileak, eta, horren bidez, adierazi zuen ez zegoela ados emandako ebazpenarekin.

Horri lotuta, adierazi zuen errentamendu-kontratu nagusiaren hileko errenta gutxitu izanak eragin zuela azpierrementamendu-errenta 200 eurotik 150 eurora murriztea. Haren esanetan, erabaki hori hartu zuen higiezinaren hileko errenta 480 eurotik 350 eurora murriztu ziotela-eta. Etxebizitzaren jabeak erabaki hori hartu zuen egiaztatu zuelako kexagileak zailtasun handiak zituela eguneroko oinarrizko premiak asetzeko.

Halaber, Lanbideren bulegoko langileen gomendioari jarraituz, interesdunak azaldu zuen ez zegoela ados errentamendu-kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-Finken Errentamendu-Kontratuen Erregistroan inskribatu beharri lotuta egindako gogoetekin.

4. Azaldutakoa ikusita, 2017ko ekainaren 20an, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bat bidali zion Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, eta, horren bidez, eskatu zion azaltzeko zergatik erabaki zuen Lanbidek, zehazki, bi prestazio horiek ukatzea.





Horrez gain, Arartekoak aurretiazko gogoeta batzuk helarazi zizkion sail horri errentamendu-kontratuak Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-Finken Errentamendu-Kontratuaren Erregistroan inskribatzeko betebeharrari lotuta; ez errepikatzearen, jarraian jasoko ditugu.

5. Arartekoak ez zuen erantzunik jaso lehenengo informazio-eskaerari lotuta, eta, hortaz, 2017ko urriaren 19an, errekerimendu bat helarazi zion sail horri, eta horren bidez gogorarazi zion berariaz erantzun behar zuela.
6. Horri erantzunez, 2018ko martxoaren 14an, sail horrek honako hau esan zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu izanari lotuta:

- *“(Erreklamatzailleak) aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtsoa 2018ko martxoaren 1ean ebatzi zen, eta gaitzetsi egin zen, ez zituelako betetzen araudiak prestazio horien titular izateko eskatzen dituen betebeharrak. Gaur-gaurkoz, jakinarazpen hori bidaltzeko dago oraindik. **Ebazpen horren kopia erantsi diogu idazki honi**”¹.*

7. Erantzunean adierazitakoa gorabehera, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ez zuen ebazpenaren kopiarik helarazi horrekin batera. Hori dela eta, Arartekoak ebazpenaren kopia aurkez zezala eskatu zion bi aldiz; 2018ko apirilaren 19an aurkeztu zuen hura.
8. Hortaz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitate- eta zuzenbide-elementuak, honako ondorio hauek atera ditugu:

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren aurrean azpimarratu nahi du oso garrantzitsua dela eskura duen informazio guztiaren berri ematea, erakunde honetan aurkeztutako kexak behar bezala izapidetze aldera.

Horri lotuta, herri-administrazioekiko harremanak zuzendu behar dituen kontraesanaren printzipioa aintzat hartuta, Arartekoak hasierako lankidetzako eskaera bat egin zuen 2017ko ekainaren 20an. Nolanahi ere, hari ez zitzaion behar bezala erantzun 30 eguneko epean. Beraz, urriaren 19an, Arartekoak berriz ere aurkeztu zuen informazio-eskaera – horren bidez, kexagileak mahaigaineratutako arazoaren berri eman zuen eta jakinarazi zuen espedientean jasotakoa osatzeko informazioa eskuratu beharra zegoela–.

¹ Azpimarra Arartekoarena da



Hori guztia gorabehera, Lanbidek ez du lankidetzeta-eskaera behar bezala bete 2018ko apirilaren 19ra arte.

Ilido horretan, Arartekoak gogorazi nahiko lioke Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak — erakunde hau sortu eta arautzekoak— 23. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, *“eskatu dakizkien xehapen, agiri, argipide edo garbitasun guztiak lehentasunez eta presaz ematea behartuta daude”*.

Laburbilduz, erantzuna igortzean izandako atzerapenaren ondorioz, Arartekoak ezin izan du behar bezain laster jardun.

2. Horrez gain, espedientean jasotako dokumentazioari erreparatuta, Arartekoak egiaztatu du atzerapen handia izan duela Lanbidek egindako jardunetan.

Hain zuzen, behar bezala egiaztatu da kexagileak 2016ko abenduaren 5ean eskatu zuela bi prestazioak aitor ziezazkiotela. Aitzitik, Lanbideko zuzendari nagusiak ez zuen eskaera 2018ko apirilaren 21era arte ebatzi.

Horren harira, Arartekoak honako hau gogorarazi nahi du, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak moldatu zuen abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 62.2. artikulurekin bat etorritz:

- *“Ebazpena emateko organo eskudunak prestazioa onartzeko edo ukatzeko ebazpena gehienez ere **bi hilabeteko epean emango du, dagokion eskabidea aurkezten denetik kontatzen hasita. Epea amaitzen bada berariazko ebazpenik eman gabe, eskatutakoa diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria badira, eman egin direla ulertuko da”**.²*

Azken batean, hauxe izan da euskal legegilearen asmoa: ustez diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzeko eskaera baietsi izana benetako administrazio-egintzat hartzea.

Horiek horrela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24.3.a) artikulua hau xedatzen du: *“Administrazio-isiltasunez baiesten den kasuetan, egintzaren ondorengo ebazpen espresua hura berresteko baino ezin da izan”*.

Hala ere, Lanbidek bi prestazioak ukatzea erabaki zuen, eskaera izapidetzeko aldiak bi hilabeteko epea nasaiki gainditu arren. Hori horrela izan da, nahiz eta Arartekoak ez duen hauteman epeak eten izana justifikatzeko arrazoirik.

3. Horri dagokionez, Arartekoak egiaztatu du Lanbidek ez zuela ebatzi eta jakinarazi kexagileak jarritako aukerako berraztertze errekurtsoa 39/2015 Legearen 124.2. artikulua ezarritako hilabeteko epean.

² Azpimarra Arartekoarena da.



Horri lotuta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 21. artikulua araberaz, administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua. Hori dela eta, ebazpen espresurik ez ematea irregulartasun larria da legegilearentzat. Zehazki: *“el Tribunal Constitucional reitera que el deber de resolver entronca con la cláusula del Estado de Derecho (art. 1.1 CE), así como con los valores que proclaman los arts. 24.1 y 106 de la Norma Suprema.”*³

Esan dugunez, Lanbideko zuzendari nagusiak 2018ko martxoaren 1ean ebatzi zuen kexagileak 2017ko maiatzaren 5ean aurkeztutako aukerako berraztertze errekurtsoa.

Adierazitako guztia aintzat hartuta, Arartekoaren iritziz, asko hobetu zitekeen Lanbidek eskubidea aitortzeko eskaerari erantzuteko baliatutako epea, bai eta kexagileak jarritako aukerako berraztertze errekurtsoa ebazteko eta ebazpena jakinarazteko erabilitakoa ere.

4. Bi eskubide horiek ukatzeko emandako arrazoiei dagokienez, Lanbideko zuzendari nagusiak aipamen orokor hau hartu du oinarri bere erabakia hartzean: *“eskubideak ekonomiko guztiez ez baliatzea”*. Horrez gain, Lanbideko zuzendari nagusiak jo zuen ezen, prestazioak aitortzeko eskaerarekin batera, aurkeztu beharra zegoela errentamendu-kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuaren Erregistroan inskribatu izana egiaztatzeke agiria.

Arartekoak, igorritako lankidetzaz-etsaera guztietan, eskatu zuen justifika zedin zergatik jo zuen Lanbidek kexagileak ez zuela baliatu *“eskubide ekonomiko guztia”*. Izan ere, ebazpenean adierazitako aipamen estandarizatuak ez zuen argitzen zerk ekarri zuen, zehazki, Lanbidek erabaki hori hartzea.

Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du administrazio-egintzak arrazoitu beharra dagoela, orduan indarrean zegoen Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 54. artikuluan eta orain indarrean dagoen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 35. artikuluan xedatutakoa betez.

Zehazki, Arartekoaren 2013ko diagnostiko-txostenean⁴, erakunde honek adierazi zuen kezkatuta zegoela Lanbidek ez zituelako ebazpenak behar bezala arrazoitzen.

³ ARZOZ SANTISTEBAN, Xabier. “Apogeo y crisis del silencio administrativo positivo”, *Revista Española de Derecho Administrativo* núm. 170/2015, Editorial Civitas, S.A. Entre otras sentencias: SSTC 6/1986, de 21 de enero, FJ 3; 204/1987, de 21 de diciembre, FJ 4; 180/1991, de 23 de septiembre, FJ 1; 86/1998, de 21 de abril, FFJJ 5 y 6; 71/2001, de 26 de marzo, FJ 4; 188/2003, de 27 de octubre, FJ 6; 220/2003, de 15 de diciembre, FJ 5; y 239/2007, de 10 de diciembre, FJ 2

⁴ **Arartekoa**. Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak



Gainera, esan genuen, ebazpen jakin batzuetan jasotako arrazoiei erreparatuta, oso zaila zela errekurtsio eraginkor bat egitea. Azkenean, berriro ere adierazi genuen kezkatuta geundela, ahaleginak egin arren, hauteman genuelako Lanbidek jarraitzen zuela arrazoiketara argirik gabeko ebazpenak ematen, eta zuzenbide-oinarriak jasotzen ez zituzten forma estandarizatuak erabiltzen.

Horixe bera zioen Arartekoaren 1/2014 Gomendio Orokorra, urtarrilaren 20koak.⁵ Han ezarri genuen eskubideak mugatzen zituzten ebazpen guztietan jaso behar zela hartutako neurria berariaz arrazoitzen zu(t)en legezko agindua(k), eta egitateen azalpenean ez zela aipamen estandarizaturik egin behar.

Azkenik, Arartekoak eskakizun hori aztertu du Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017⁶ izeneko dokumentuan. Han ondorioztatu da asko hobetu daitezkeela Lanbidek emandako ebazpenetan adierazitako arrazoiak.

Aztertzen ari garen kasuan, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea ukatzeko ebazpenean ez zen manurik aipatu. Halaber, ez ziren aipatu prestazioak ukatzea ekarri zuten egitateak, eta aipamen orokor eta estandarizatuak bakarrik jaso zen.

Aukerako berraztertze errekurtsioa ezetsi zuen Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpena kontsultatu behar izan du Arartekoak jakiteko zergatik jo zuen erakunde horrek kexagileak ez zuela baliatu *“eskubide ekonomiko guztia”*.

Hori guztia dela eta, Arartekoak berriro ere adierazi nahi du, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 35. artikuluari jarraituz, Lanbidek egitateen aipamen laburra eginez arrazoitu behar dituela eskubide subjektiboak eta interes legitimoak mugatzen dituzten erabakiak.

5. Kontu juridiko-materialei dagokienez, Lanbidek, kexagileak jarritako aukerako berraztertze errekurtsioa ezetsi duen ebazpenean, ondorioztatu du herritar horrek ez duela baliatu *“eskubide ekonomiko guztia”* eta *“la persona recurrente tiene subarrendada una habitación cobrando, a la subarrendadora, un precio de 150€ cuando antes el importe era 200€”*.

jasotzen dituen..

[Eskuragarri]: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3272_1.pdf

⁵ **Arartekoa**. Arartekoaren 1/2014 gomendio orokorra, urtarrilaren 20koa. Lanbidek arrazoitu egin behar ditu eskubideak mugatzen dituzten ebazpenak. [Eskuragarri]: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3269_1.pdf

⁶ **Arartekoa**: *Diagnostiko-Txostena*, Lanbidek DSBE eta EPO prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017. 4.1.2 ean 35. orrian eta 4an 126. Eta 127. orritan [Eskuragarri] http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4199_1.pdf



Arartekoa ez dator bat Lanbideko zuzendari nagusiak bere ebazpenean jasotako zioekin, jarraian adieraziko ditugun arazoak direla-eta.

Lanbideren ustez, kexagileak eduki ekonomikoko eskubide bat baliatzeari uko egin zion 50 euro jaitsi zuelako azpierreant emandako logelaren prezioa. Hala ere, kexagilearen asmoa une oro izan da diru-sarrera batzuk eskuratzea, horiek etxebizitzaren hileko errenta ordaintzen lagun ziezaioten.

Azken batean, Lanbideren iritziz, kexagileak sinatutako kontratuaren prezioak adostutakoa baino handiagoa izan behar zuen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitor ziezazkioten.

Arartekoaren ustez, horrek dakar lege-oinarririk ez duen betebeharrak bat *“ex novo”* sortzea. Izan ere, horrek eragingo luke etxebizitza baten titular (jabetzan nahiz alokairuan) den oro behartuta egotea logela bat azpierreant ematera irabazi bat lortzeko eta horrela *“eskubide ekonomiko guztia”* balio izatea.

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari adierazten dio Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legeak ez diela titularrei exijitzen ahalgindu daitezkeen ahal duten egoera guztietan irabazia lortzen eduki ekonomikoko eskubide edo prestazio oro baliatzeari buruzko baldintza betetze aldera; gainera, ezin da eskakizun hori ondorioztatu lege horretan adierazitakotik. Eta, jakina, esan gabe doa lege horrek ez duela ezartzen irabazi horrek ahalik eta handiena izan behar duenik.

Gainera, Arartekoak uste du garrantzitsua dela legegileak pertsona batek azpierreantatik lor ditzakeen diru-sarrerari emandako tratamenduaren gaineko gogoeta egitea. Izan ere, horiek ez dira errendimendu ekonomikotzat hartu behar, maiatzaren 25eko Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko 147/2010 Dekretuaren (aurrerantzean, 147/2010 Dekretua) 21.1.e) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Horiek horrela, azpierreantamendu-kontratutik lortutako diru-sarrerak, handiak zein txikiak izan (betiere etxebizitzagatik ordaindu beharreko zenbatekoa gainditzen ez badute), ez dira errendimendutzat kontuan hartuko diru-sarrerak bermatzeko errenta kalkulatzeko.

Hori guztia dela eta, Arartekoaren ustez, herritar horri diru-sarrerak bermatzeko errenta ukatu aurretik, Lanbidek egoera aztertu behar zuen alde aurretik; izan ere, azpierreanta gisa jasotako zenbatekoa salbuespentzat jotzen du 147/2010 Dekretuaren 21.1.e) artikulua.

6. Azkenik, 2017ko apirilaren 21eko ukatzeko ebazpenean, Lanbidek dio kexagileak Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-Finken Errentamendu-Kontratuaren Erregistroan inskribatu behar zuela errentamendu-kontratua.





Interesduna ez dator bat erakunde horrek emandako arrazoiekin, eta, hortaz, hauxe adierazi zuen 2017ko maiatzaren 5eko aukerako berraztertze errekurtsoan:

- *“En cuanto al segundo de los motivos Vds. Aludidos, me informan en las oficinas de Lanbide de Agurain que no me afecta, y por tanto no debo contestar al mismo”.*

Gauzak horrela, Lanbideko zuzendari nagusiaren 2018ko martxoaren 1eko ebazpenean, aukerako berraztertze errekurtsoa ezetsi zuenean, ez da gai horren inguruko aipamenik jaso.

Izan ere, Arartekoak ez du hauteman horrelako betebeharririk ezartzen denik diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria erregulatzen dituen araubidean.

42/2016 DEKRETUA, martxoaren 15ekoa, fidantzak jartzeari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroari buruzkoa (aurrerantzean, 42/2016 Dekretuak) dio errentamendu-kontratua inskribatzea errentatzailearen betebeharra dela.

Zehazki, 42/2016 Dekretuaren hitzaurreak honako hau dio:

- *“Fidantza jartzeko eginbeharra eta hiri-finken errentamendu-kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Finken Errentamendu Kontratuen Erregistroan inskribatzekoa bi betebeharrak ezberdin dira, biak **alderdi errentatzailearen eginbeharrak badira ere**”.*⁷

Era berean, 42/2016 Dekretuko 27.1. artikulua hauxe ezartzen du:

- *“Kontratuen inskripzioa **alderdi errentatzaileak eskatuta** gauzatuko da (...)”*⁸

Laburbilduz, Arartekoak ez du hauteman kexagileak kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-Finken Errentamendu-Kontratuen Erregistroan inskribatzeko betebeharra duenik, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria erregulatzen dituen araubideari eta 42/2016 Dekretuari jarraituz.

7. Adierazitakoa aintzat hartuta, Arartekoak egiaztatu du kasu honetan ez direla jazo Lanbidek adierazitako arrazoiak (diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzea justifikatu zutenak). Hain zuzen ere, Arartekoak egiaztatu du kexagileak une oro baliatu zuela *“eskubide ekonomiko guztia”*. Izan ere, bizi den higiezineko logela bat eman du azpierrean, etxebizitzaren gastuak ordaintze aldera. Beraz, ezin da interpretatu logelaren alokairu-prezioa jaitsi izanak (hileko errenta murrizteak eragin du hori, gainera) ekarri duenik eduki ekonomikoko eskubide oro baliatzeko betebeharra ez betetzea.

⁷ Azpimarra Arartekoarena da.

⁸ Azpimarra Arartekoarena da.



Horrez gain, Arartekoak egiaztatu du ezin zaiola kexagileari eskatu errentamendu-kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-Finken Errentamendu-Kontratuen Erregistroan inskribatzeko, higiezinaren errentatzaileari dagokiolako betebeharrak betetzea.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, hau da Arartekoaren gomendioa:

GOMENDIOA

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen dio interesdunari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatu zizkion ebazpena baliogabetu dezan, egiaztatu baita ez dagoela behar adina lege-babesik horretarako.

Horrenbestez, egiaztatu denez ez zegoela prestazio horiek ukatzeko arrazoirik, bidezkoa da kexagileari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aitortzea, eta dagozkion atzerakinak ordaintzea, prestazio horiek aitortzeko eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera (hau da, 2016ko abenduaren 6tik aurrera).

